

Lizar gozoa

ODERITZEN “harmena” deitzen zaio besakada batean bildu daitekeen hostoz jantzitako adar multzoari. Izen mordoa du ihartu eta neguko bazkatarako jasotzen zen azao horrek. Gari, belar, adar, egur... eskuta guztientzat izen bertsuak erabili izan dira. Eskuta eta eskuda, eskukada eta eskuera gogora dakartzkidate, eta eskuera esateko harmena erabiltzen da. Eskua eta har daitekeena, sortak sortzeko uztarri polita.

Mendian, bide ertzetan eta etxe inguruetan batik bat lizarra aldatu izan da harmenetarako. Erabilera ugari du mirarizko zuhaitz honek: itzala, hosto jatena, zura, tximistak uxatzea... *Fraxinus excelsior* izenak ederki adierazten du. Neuk ere beti aldamenen nahi dut; etxe aurrean ditudan bakanetako bat bera da.

Lizarra ez den zuhaitzaren adarrak ere jaso izan dira negu gorriko bazkatarako; haritza (*Quercus robur*), adibidez. Arabako Badaia eta Arrato aldean lizar loreduna (*Fraxinus ornus*) ere erabili izango zuten. Lizar bitxi hori orain edo-

nongo lorategitan edergarri topa badezakegu ere, itxuraz naturala, berezkoa, hor bakarrik da gure herrian. Gaur. Lehen auskalo non ez zen biziko giro mediterraneoaren zale amorratu hau.

Lizar arruntak ez bezala, udaberrian loreak ikusgarriak ditu, urrutetik ikusgarriak, alegia. Hark hostajearekin nahasteko moduko lore berdeak dituen eran, honek petalo laruz jantzitakoak. Hori gutxi balitz bezala, loreak ez ditu banaka erakusten, tente-tente antolatutako multzo-buru handietan baizik.

Lizar honi “mana zuhaitza” deitzen diote kultura ugaritan: frassino da maná italieraz, *manna ash* ingelesez, *fresno de mana* gaztelaniaz, *manna-ask* suedieraz eta danieraz, *manna-esche* alemanez. Euskaraz ez dugu manarik nonbait... Manatzat hartze hau zaurietatik isurtzen duen izerdiaren gozoagatik datorkio. Mana biblikoarekin duen konparaketa honen lehen dokumentua XV. mendekoa da. Gose zen jendeak azalean pikoak ebaki, eta azukrea, ahoko zulora! Gaur egun, labana zorroz-



JEAN-POL GRANDMONT

Fraxinus ornus, lizar loreduna.

tu eta azukre hau eskuratuz gero, mana ez, gutizia litzateke, zenbait sukaldari zuri-ederrentzat gorena. Azukrea manosa da, eta hark ematen duen alkohola manitola. Hurrengo udaberriko izerdiarekin likoreren bat egingo al dugu? ■



JAKOBA ERREKONDO



Usurbilgo Artaburuenea

Urtero bezala espaloi ertzetan eta biribilgu-neetan lore apainak ematen dituzten landareak jartzeko sasoia iritsi zen. Gure herrian loreak jartzeko dirurik ez, itxuraz. Lur muttur horiek nolabait bete behar eta lorezainek baratzeko eta soroko landareak erein: kuiatxoak (*Cucurbita pepo*), artoa (*Zea mays*)... Ez dakit aukeraketa nork egin zuen, baina udaletxe aurrean arto saila jarri dute. Uda honetan ahoz belarri dabilen txantxa udaletxeari “Artaburuenea” deitzea da. Txantxa guztiek bezala egiatik ere badu bere puska. Gure paisaia kulturala osatzeko pipermin (*Capsicum* sp.), zerba aukera (*Beta vulgaris*) eta abar jarri beharko dute aurrerantzean. Negurako “Artaburuenea” atarian jartzeko egokiak: azak (*Brassica oleracea*) azaostopekoa deitzeko, arbiak (*Brassica rapa*) arbiburutegi... Onena pikondo bat (*Ficus carica*) jartzea betiko, erabaki guztiak pikoepokoak izateko. ■